

Adierazpen eta Sormen Heziketa

Adierazpen eta Sormen Heziketa tailerrak eredu, konparazio eta epairik gabeko espazio askea dira; bertan pertsona guztiek gaitasun sortzailea garatzeko aukera dute.

Ez da bilatzen zenbait teknika hobetzea baizik eta pertsonaren sormena eta adierazkortasuna bere neurri maximora iritsi ahal izatea.

SORMEN HEZIKETARI BURUZ:

Sormen Heziketak pertsona guztiak seguru sentitzeko eta eredu baten mende egon gabe egoteko baldintzak ezartzen ditu. Bizitzako edozein egoeratan sortzeko gaitasuna garatzeko, desberdina, originala eta pertsonala den guztiarekin berriz elkartzeko aukera dago, inhibiziorik gabe eta erakustaldietatik urrun. Eredu, konparazio eta epairik gabe, beldurra desagertu egiten da, mugak hautsi egiten dira eta gai garela uste dugunetik harago eboluzionatzen gara. Horrela inprobisatu, ikertu, sortu eta garatu daiteke dagoen jarduerarik serioena eta zorrotzena: jolasa.

Arlo honetan gure erreferente nagusiak Miguel Castro eta Vega Martin izan dira: <https://dirayaexpresion.es>

Solasgunen garatu genuen baldintza hauek edozein ikasketarako baliagarriak diren ideia, eta hortik garatu genuen lanketa [Herrigune Leioa](#) herri-hezitzaile proiektuan eta bai [Laboragunean](#).

*Laboragunen bizitako esperientziak artikulu batean kontatzen saiatu nintzen behin :
<https://solasgune.com/peru/>

Arno Sternek pintatzeko proposatutako hezkuntza sortzailearen baldintzak dira lan honen funtsa, eta beste material batzuetan (buztina, adibidez), mugimendu tailerrean norberaren gorputzarekin lan egitean eta konfigurazio-jolasean eta beste edozein ikaskuntzatan duen aplikazioa ikertu dugu. Hortik abiatuta, deriba pertsonalaren kontzeptua ere garatu da.

Deriba pertsonala

Jaiotzean, pertsona orok ditu gaitasun eta tresnak, oinarrizko senetatik abiatuta, inguratzen duen munduarekin erlazionatzeko. Irekitasunean eta jakin-minean oinarritutako harreman hori handitu eta konplexuagoa egiten da denborak aurrera egin ahala.

Ikasteko askatasun-baldintza jakin batzuk baldin badaude, eta ikaskuntza norberaren premiek eta interesek gidatzen badute, ez da inoiz modu linealean gertatuko; aitzitik, "zuhaitz-egitura" moduan antolatuko da, non ezagutza batzuk beste batzuekin lotzen diren "deriba pertsonal" batean, kanpoko ordena logikorik gabe, agian, baina barne-ordena sakon batekin.

SORMEN HEZIKETAREN BALDINTZAK:

Jolas batek funtziona dezan, askatasun-baldintza jakin batzuetan gertatu behar da: talde heterogeneo bat egotea, epairik kanpo lan egitea eta oso rol berezia hartzen duen hezitzaile bat egotea.

Baldintza horiek aurkitzea zaila da gure gizartean. Hala ere, pertsonei adierazi ahal izateko eta edozein ikaskuntza mugarik gabe egiteko aukera ematen diete.

1. Talde heterogeneoa

Adin, pentsaera eta jatorri desberdineko pertsonak biltzen direnean aniztasuna nabarmentzen da. Ezaugarri horiek dituen talde batean, posible da norbera izateko eskubidea erabiltzea, eredurik gabe, besteen desberdintasunen artean norbere burua finkatzea eta norberaren espazioarekin, norberaren erritmoarekin eta norberaren interesekin haztea.

Pertsonak adinaren arabera taldekatzen direnean eta ikaskuntza-programa bera ezartzen zaienean, uniformatu egiten dira eta elkarrekin alderatu egiten dira ezinbestean.

Talde heterogeneo batean, pertsonak, nabarmen desberdinak izanik, ez dira alderatzen eta lehiakortasunik gabeko harremanak eraikitzen dituzte. Haien artean ez da inolako ikusmin edo konposturarik sortzen.

2. Epairik gabeko espazio bat

Gizarte honetan gertatzen denarekin kontrajarrita, non etengabe dena egiten den besteen onarpena bilatzeko, eta denari buruzko iritzia eman eta epaitzen den, Sormen Heziketako tailerretan era guztietako gauzez hitz egiten da, baina inoiz ez bakoitza egiten ari den lanaz. Horrela, pertsonak besteentzat lan egitetik aske geratzen dira, eta, orduan, beren benetako beharrak ager daitezke.

Epaietatik kanpo lan egiteak esan nahi du beldurra desagertu egiten dela eta jolasteko eta ikertzeko gaitasuna izugarri handitu egiten dela. Horrela, errorea existitzen ez den prozesu batera iristen da, jarioan, prozesu natural baten zati gisa, non mugak hautsi egiten diren eta, edozein ikaskuntzatan, norberak pentsa lezakeena baino askoz haratago joaten den.

3. Hezitzailearen rola

Jolas bat laguntzen duen pertsonak arau jakin batzuk betearazten ditu, jolas izateari inoiz utz ez diezaion. Bere jarrerak eta prestakuntzak epaitzea eragozten diote, baita harritzea, erreakzionatzea edo harro sentitzea berarekin lanean ari diren pertsonak egiten dutenaz. Ez du irakasten, ez ditu prozesuak azkartzen edo atzeratzen, ez du aurkikuntzarik lapurtzen. Badaki pertsona bakoitzaren erritmoa errespetatzen. Ez du zuzentzen edo interpretatzen. Lana atsegina egiten du. Bere rola zerbitzatzea da. Lan-eremua inoren begiradetatik eta indiskreziotik babestea, eta, horrela, askatasun-eremuak egotea ahalbidetzea.

Norbaitek prozesu bat hasten duenean, epaitzen ez duen pertsona bat alboan edukitze hutsak, denborarekin, bere burua epaitzeari uztea eragiten du, mugarik gabeko jolas batean sartuz.

Heziketa Sortzailearen baldintzen baitan gai ezberdinak landu daitezke: margoa, buztina, eraikuntza, mugimendua, jolas librea...

Margo Tailerra

Margo Tailerlean trazua eta kolorea lantzen dira. Pertsona bakoitzak bere lan eremu pertsonala dauka, 50x70 neurriko orrietatik abiatuta osatzen dena, orri gehiago gehitu daitezkeelarik. Idealki, papera paretan kokatuko dugu txintxetekin; bestela, mahai gainean egin daiteke.

Tailerlean 18 kolore dituen paleta-mahaia dago, baita kolorea ikertzeko nahasketa-armairua ere. Pigmentu asko duen guatxe oso elastikoa erabiltzen dugu, hala unean-uneko beharren arabera diluzio handiago ala txikiagoarekin margotu daitekeelako, kolorearen kalitatea mantenduz eta ehundura aniztasunerako aukera emanez.

Buztin tailerra

Buztin tailerlean espazioa eta bolumenari buruzko ikerketa burutzen da. Zenbait tresna erabiltzeko aukera dago, hala nola, makiltxoak, hustutzaileak edota alanbreak baina erraminta funtsezkoena eskuak dira.

Lan espazio pertsonala taula bat da, eta horren gainean landuko dugu buztin gorria. Espazio hau handitu egin daiteke, behar izanez gero, taula gehiago erantsiz bata bestearen aldamenean lanaren bolumenak hala eskatzen duenean.

Eraikuntza Tailerra

Eraikuntza tailerlean espazioa eta bolumenari buruzko ikerketa burutzen da. Erdian paleta-mahaia dago eta bertan daude guztiek erabiliko dituzten materialak: egurtxoak, kartoia, papera, tela zatitxoak, errotuladoreak, artaziak, barra-kola... Mahaiak inguruan kokatzen dira eta bakoitzak behar duena erditik hartu eta bere espazio pertsonalera eramaten du bere lana eraikitzeko.

Tailer hau birziklaiarekin batera landu daiteke, erabiltzen diren kartoi edota tela zatitxoak birziklatuak baitira neurri handi batean.

Jolas Tailerra

Heziketa Sortzailearen baldintzen baitan, rolak bereganatu eta espazioak itxuratzeko jolasa hazi egiten da. Interpretazioagandik, terapiagandik eta ikuskizunagandik "babestuta", konfigurazio-jolasa hazi eta eboluzionatu egiten da -beste edozein jolas bezala- eta pertsona bakoitzari soilik dagozkion ikaspen eta konkistak bideratzen dizkigu, inork lapurtu ez "utzi" ezingo dizkigunak.

Segurtasun baldintza hauen baitan jolasak aspektu eragileak, emozionalak, espazialak eta ezagutzazkoak lantzeko aukera ematen du, uneoro gure beharrei, desirei eta ahalmenei erantzunez.

Sokak, telak, koltxonetak eta abar erabiltzen ditugu.

Lan espazioa, tailer honetan, partekatua da. Honek gure mugak ezarri behar izatea dakar eta akordioak egin behar izatea, halabeharrez gure desirak ezagutzen eta besteen askatasuna errespetatzen ikastera behartuz.